

Nu!



Santixabelak, iruditan



Hiri hondakinen kudeaketa,
berriz ere pil-pilean



Zure gorputzarentzat **hoberena** nahi duzula dakigulako orain **Alkertasuna Elkartean** produktu ekologikoak ere bai

Alkertasuna

Herriko Kooperatiba Elkarte

Ugarte Industriale 17

Tolosa - Faxa 943 361 114


20170 USURDU - Gipuzkoa

alkertasuna@guaiti.com

Txirrikitutik !

Argazkia 1970-1973 urte ingurukoa da eta herriko Audaletxearen aurrean aterata dago. Bertan agertzen diren gazteak orduko La Salle ikastetxeko ikasleak dira. Ezagutzen al dituzue? Ezkerretik eskuinera eta goitik behera hona hemen ezagutu ditugun gaztetxoen izen-abizenak: Javier anaia, Gonzalo, Juan Unanue, Larbain, Alejandro Arrojeria, Jose Ramon Ibargoien, Joxe Unanue, Sebastian, Hernani, Alkorta, Izagirre, Sancho, Olasagasti, Markos, Joxe Angel Ibargoien, Izeta, Manzano, Fernando Rodriguez, Makario, Ixidro, Araolaza, Patxi Azpirotz, Sanchez, Cañibano, Toribio, Urkiola, Batalla, Karranza, Lontxo, Carlos Okariz, Jose Luis Sagardia, Mikel Rekondo, Kuriel, eta Zubeldia. Oraindik ezagutu ez ditugun herritarrek geratzen dira eta beraz, bateren bat ezagutu baduzue edo okerrik badago eta zuzendu behar bada, jar zaitezte NOAUA!rekin harremanetan, gustura hartuko dugu zuen parte hartzea!

Zaloe Arnaiz Ibareguren



Egilea: ezezaguna, 1970-1973, Kaleberri

Jabetza: Patxi Azpirotz

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloe Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Hiri hondakinak nola kudeatu, hortxe dago kokxa.

Aurkibidea

ZUTABEAN, IDOIA TORREGARAI _____ 4. ORR.

ITZIAR BASTARRIKA LEGBILTZARKIDEA _____ 5. ORR.

AITOR EGILETA, POLINESIATIK _____ 10. ORR.

SAN JOANAK ETA SANTIXABELAK, IRUDITAN _____ 11. ORR.

San Joanak amaitu orduko hasi ziren Santixabelak. Jaietako irudi esanguratsuenetako batzuk bildu ditugu.



MOULINEX LANTEGIA, EGOERA LARRIAN _____ 15. ORR.

ERRAUSTE-PLANTEKIN BUELTAKA _____ 16. ORR.

15 URTEKO ZIGORRA PATXI SEGUROLARI _____ 17. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



IDOIA TORREGARAI

Maitasun istorioa

Zurekin bizi nintzelako
Ahaztu zintudan.
Egunero ikusten zintudalako
Desagertu zinen
Nire bistatik.

Orain bakarrik bizi naizelako
Ezin zaitut ahaztu.
Inoiz ikusten ez zaitudalako
Agertzen zara beti
Nire begien aurrean.

Pako Aristi, Gauza txikien liburua

Asko maite dut Aintzane. Izugarri gustatzen zait bere gaztain koloreko begiak niri begira daudela ikustea. Edo bere ezpain jostariak irribarre zabala eskaintzen didatela sumatzea. Garrantzitsua sentitzen naiz oso. Garrantzitsua eta bakarra.

Ez zait batere gustatzen Aintzane Andonirekin hitz egiten ikustea. Gorroto dut bere gaztain koloreko begiek hari begiratzea. Jasanezina egiten zait bere ezpainak beste bati irribarrea eskaintzea. Ahula sentitzen naiz oso. Ahula eta ezereza.

Asko maite dut Aintzane, bai. Hemendik aurrera Aintzane soilik niri begiratuko, niri egingo dit barre. Baina zer gauza arraroa; bakarrik eta hutsik sentitzen naiz. Eta ez dakit non garbitu eskua erretzen didan laban luze hau...

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. **Hurrengo alea:** uztailak 22. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** uztailak 15.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 URBIL - 943 870 844

ITURGINTZA

.....

J SE
NGU EN

.....

TEL 3 3 72

Industria eta irabagarri
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

PSU

943 371 954
UDALDEA POL.36-2-URBIL

Kale Nagusia, 10
Tel: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA

943 365 095
609 068 111

GOIZ ARGI ETXEA-37-KALEZAR

PATRI
JATETXEA

943 362 725

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

Zubietar bat Eusko Legebiltzarrean

Eusko Legebiltzarrak legegintzaldi berri bati ekin dio. Legebil-tzarkideen artean zubietar bat topatu dugu, Itziar Bastarrika. Oreretan jaioa, duela 13 urtetik hona Zubietan bizi da EHAKko kide hau. Politikagintzan esperientziarik ez duen arren, Itziarrek ilusioz ekin dio erronka berri honi.

NOAUA! Nor da Itziar Bastarrika?

Itziar Bastarrika. Itziar oreretar emakume bat da, irakaslea. Bikotekideak eta nik elkarbizitzen jartzea erabaki genuenean, argi genuen gauza bat: ez genuen herri giroan bizi nahi. Leku lasaiago bat nahi genuen. Baserri baterako presuestorik ez genuen baina zorte ona izan genuen. Zubietan etxe bat erosteko aukera izan genuen eta duela 13 urtetik hona hemen gaude, txirripaz.

N. Eta uste bezain lasaia al da Zubietan?

I. B. Bai, bai da lasaia. Etorri ginenean ez genuen seme-alabarik. Orain bi ditugu. Horrek asko aldatzen du egoera. Garai batean, kanpoan lan egin eta etxera lotara etortzen ginen; Zubietan bizitza gutxi egiten genuen. Umeak bultzatuta, gehiago ateratzen hasi ginen eta umeen aitzakiarekin, guraso talde bat osatu da. Gune askotan egin dugu topo eta horrek bildu egin gaitu. Maiz bazkariak, afariak, irteerak eta horrelakoak egiten ditugu.

N. Orain baduzu zeregin berri bat. Non eta Eusko Legebiltzarrean.

I. B. Egia da alderdiaren inguruan bildu diren batzuk ez dutela denbora asko egin EHAK barruan. Ni adibidez.

Ni independente bezala nago, baina aurretik EHAKk bazuen bide bat egina. Hor bildu garen askok ez dugu ibilbide politiko luze bat. Beste ibilbide mota bat dugu. Zorionez, ibilbide horri hasiera ona eman diogu eta babesia jaso dugu.

N. Bapatean, Gasteizen, Eusko Legebiltzarrean zaude. Giltza zuen esku dago gainera, ardura handia sentitzen al duzu?

I. B. Giltzarena ez dut hain argi ikusten.

Ardurarena, bai; ardura bada. Ezin ukatu. Ibilbide bat egin duzu zure bizitzan eta orain, bapatean, politikan ikusten duzu zure burua. Ni gainera zerrendan zazpigarrena nintzen. Ez nuen nire burua hor ikusten baina gauzak horrela suertatu dira eta hortxe naiz. Pertsonalki, ardura eta erronka handia da, dudarik gabe. Ilegalizazioaren aurrean, boto mordoa jaso dugula ikusi dugu. Ezker abertzalearen zenbait alderdik eta instituziok babestu egin gaitu eta ardura handia sumatzen dugu. Nolabait jende hori ordezkatu nahia bada gure asmoa.

N. Denbora honetan guztian, zuetaz gauza asko esan dira. Erraza al da baldintza horietan lan egitea?

I. B. Niri horrek ez nau kezkatzen. Nik badakit nere ahalmena noraino iristen den. Bidea eginez ikasten da mundu honetan. Gaur egun, parlamentuan nortzuk dauden ikusita, zera esaten diot nire buruari: "hori hor badago, ni ez naiz gutxiago izango".

Niretzat ohorea da bederatzitik zortzi emakume izatea.



ESZEDENTZIA ESKATU DU GASTEIZEN BURUBELARRI ARITZEKO.

Jaietan pentsatzen

NOAUA! Santioak hasiko dira laster. Gustukoak al dituzu festak?

Itziar Bastarrika. Gaur (ekainak 24) soka dantza ikustera noa Kalezarrera. Nik Santioetan dantzatzen dut. Irakaslea Kalezargoa denez, hara goaz bere saioa ikustera. Aitzakia horrekin, sargardoa eta sardinak dastatuko ditugu. Santixabeletan, aldiz, Zubietako gurasooi jokoetan egon beharra tokatu zaigu.

Eta Santioetan ere ibiliko gara. Ekitaldi denak ditut gustuko. Jaien aitzakiarekin bazkari eta afari asko egiten ditugu. Lan pixka bat ere bai. Jai batzordea herren geratu da eta lan pixka bat egin beharko dugu.

Ibarretxe, Zapatero, Bush...

NOAUA. Etxean nola hartu dute zure eginbehar berria?

Itziar Bastarrika. Semea eta alaba gazteak dira oraindik. "Gaur Gasteiza noa" esaten diet, edo "gaur bilera daukat Gasteizen".

Zaharrenak 10 urte ditu eta lehenbiziko egunean zera galdetu zidan: 'Ibarretxerekin bilduko zara?'. Nik ezetz erantzun nion. 'Eta Zapaterorekin?'; nik ezetz, ez nintzela Zapaterorekin bilduko erantzun nion. 'Orduan, Bushekin' bota zidan semeak!

Duela gutxi, zera eskatu zidan semeak: 'Autografo bat ekarri behar didazu'. "Noren autografoa nahi duzu?" galdetu nion nik. Eta semeak: 'Ibarretxerena'. Autografoa eskatzeko ez dela hain inportantea esan nion, baina umeak ikusten du Ibarretxe zerbait gehiago badela.

Alabak, ordea, sei urte ditu eta oraindik ez da konturatzen. Baina semeak esan zidan botoa ematen ikusi ninduela. Alabak berriz, 'ni ez amatxo, ni ohean nintzen'. Semeak galdetu zidan: 'zer bozkatu duzu, nuloa?' Ah! Hori sekretua da,

erantzun nion...

N. Horixe bera galdetu behar nizun.

I. B. Sumarioko sekretua da. Taldeak eman ditu bi bozka horiek...

N. Tira. Aurrera begira, gauzak asko aldatuko al zaizkizu?

I. B. Orereta Ikastolako irakaslea naiz eta ikasturtea amaitu berri dut. Baina irailetik aurrera, eszedentzia hartuko dut eta burubelari arituko naiz parlamentuan. Bederatzitik, hiru izango gara liberatuak.



IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Festaz festa

Kaixo auzotar agurgarriak, hona gatoz berriz ere auzoko istoriotxoak kontatzera, nahiz eta azken egunotan istoriotxo gehienak herrian izango ziren, Santixabelen kontura. Aurten ere, amaitu dira herriko festak eta, beste urtetan bezala, Zubietako Santioen zain jarri behar. Santioen ondoren gureak izango ditugu San Estebanak, beraz Santixabeletako ajeak alde batera utzi eta auzoko festetarako pilak kargatzen jartzeko garaian gaude. Urtero bezala, festak hasi aurreko egunetan izaten ditugu lan, stress eta nerbio gehienak, bereziki, jai batzordean festak antolatzen aritzen garenok. Aurten, gainera, obra txiki batzuk egiten ari gara eta nahikoa lan pilatu zaigu azken egunetarako. Ea ba eginbehar guztiak bukatzen ditugun eta behar bezalako festak ateratzen zaizkigun. Besterik gabe, hurrengoarte.



ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Santixabelak joan zaizkigu

Aurten ere, etorri bezain azkar joan zaizkigu herriko festak! Niri behintzat aurten motzak egin zaizkit, Santixabel Eguna larunbatean tokatzeagatik izango da. Giro ederra izan da nagusi festa guztian. Aurten arrakasta handia izan dute oilasko biltzaileek; 100dik gora izan dira bertan parte hartu dutenak. Festen hasierako txupinazoa ere politta izan zen, Amaia Zubiriaren ahotsa barren-barrenera sartzen da. Azken trakan, ordea, ez zen horrelako zortirik izan, 22:00ak aldera xirimiria hasi eta dena hankaz gora joan zen, urte guztian egindako lana! Kaka zaharra. Baina eguraldian eraginik ez daukagunez, ezin ezer egin.

Santixabelak amaitu dira baina oraindik udako festak hasi besterik ez dira egin. Orain San Ferminak datoz eta honela segidan uda guztian zehar. Gaur, astelehena (hilak 4), zerua triste dago, euria ari baitu, baina ez da txarto etorriko herria garbitzeko.

Eutsi goiari! Etorriko dira egun hobeak, eguraldi honek ajea pasatzen laguntzen du-eta. Gora Santixabelak!



Belmonteko jaiak

Zer moduz pasa dituzue festak? Herriko jaiak zere ondo, ezta? Kalejarren oso ondo pasa genituen San Juanak, euri tantak ez gintuen bildurtu eta programan iragarrita zegoen guztia bete zen. Ostiraleko dantza saioa izan zen jaietako unerik hunkigarriena, omenaldia jaso zutenak (orain dela 35 urte soka-dantza dantzatu zuten gizon-emakumeak) hunkituta zeuden eta ekitaldia eskaini zutenak ere gustura jaso zuten esker ona, ondoren ospakizunari bukaera emateko afaltzera joan ziren denak elkarrekin. Oilasko biltzaileen eguna arrakastatsua izan zen, bai guraso eta haurrena zein gazteena ere, azken hauek tranpa txikiren bat egin zuten baina tira, barkatuta daude, kar, kar, kar.

Inolarrean, tortila patata dastatzeko aukera izan zuten Kalexarko plazara gerturatu zirenak, lehia bizian zebiltzan nork irabazi sukaldari titulua baina hau dena umorez, noski. Jaiak umeek agurtu zituzten euren egunarekin, badakit nik txikiek gauza bat

bota zutela faltan, mangera! Baietz?

Ez dakit zuek San Juan sutara bota beharreko gauza guztiak bota zenituzten edo ez, baina ni pena batekin geratu naiz, garai batean Udarregi Ikastola zen toki hortan pilatu den txatar eta zabor guztiak sutan erretzeko zera horrekin geratu naiz. Oso itxusia geratu da zonalde hori, agian estalita egongo balitz begietan ez liguke horrenbesteko kalterik egingo. Ea txukun-txukun usteko aukera dagoen.

Komentariotxo bat amaitzeko. Herri antzerkiak izan duen oihartzuna aipatu nahi dut. Eskiako bertotan Belmonte gora eta Belmonte behera, batzuk eta besteak "Kalexar ez Belmonte" esanez, eta txosnan zintzilik kartel bat "Villa de Belmonte" data eta guzti. Oso graziosua izan da "Sarraileko Giltza" antzezlanak ekarri dituen zer esanak.

Beno ba besterik gabe, San Rokerarako geratuko gara auzotarrak, bitartean ondo izan.

Kalezar



AINARA
URIBE

Noiz arte?

Lehenik eta behin, zorionik beroenak Miel Arrastoari, egin dioten omenaldi hori eta gehiago merezi duelako. Mendian gora edo behera nekatu gabe dabilela dirudi. Hain bizkor eta xumea izanik, asko maite dute mendizale guztiak, batez ere Kataberako lagunek. Bejondeizula Miel! Horrela jarraitu.

Gaia aldatuz, egun hauetako batean Urbila joan naiz erosketak egitera eta hara zer poltsak ekarri ditudan etxera, "Arriba los frescos, abajo los precios". Baina zer da hau? Eroskik ez al zuen bada euskaraz idatzi edo hitz egiteko konpromisoa? Bestalde, arropan probalekura joan eta zerbait galdetzean, "entender ya entiendo, pero tanto como para contestarte no lo sé, por favor, si me hablaras en castellano".

Noiz arte jarraitu behar dugu horrela? Gure auzoan eta gure herrian dena euskaraz egiten ohituak gaude. "Euskarak ez du preziyoik" kan-



painarekin eskertzeko ahalegina egin zuten herriko dendariak. Hain gertu dagoen hipermerkatura joatean hainbeste aldatzea ere... Etiketak jartzerakoan, hain zaila egiten al da, "Bertako tomatea" jartzea "Del país" jartzeko partez?

Ea aurrerantzean akatsak zuzentzen saiatzen garen.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



AGUSTÍN
ESNAOLA

Santutenea

Zaharren egoitzako txapelketak

Zaharren egoitzakoek, urtero bezala, bere kideen arteko txapelketak burutu dituzte. Txapelketa hauen artean, karta saioak izaten dira nagusi. Bai mus txapelketa, puntu txapelketa eta baita tute txapelketa ere, baina abilitate txapelketa burutzen dute ere, hau da, igel jokoaren txapelketa.

Olinpiada txiki hauetan gizonezkoak nagusi direla esan behar da. Emakumeak, puntuan dira nagusi. Esan behar, beste urtetan musean ere, txapeldunak emakumeak izan direla. Aurten ordea, gizonezko bi bikote izan dira txapeldunak.

Gabriel Encina eta Juana Sanchez mus txapelketako txapeldunak izan dira eta Federico Lopez eta Fidel Santa Maria azpi-txapeldunak. Puntuan, ordea, emakumeak nagusi: M^a Jesus Arruti eta Isidra Osa txapeldunak izan dira eta Paulina Ikutza eta Claudia Murua azpi-txapeldunak. Tuteko txapelketan, Teodoro Muñoz eta Basilio Dominguez txapeldunak izan dira eta Federico

Lopez eta Fidel Santa Maria azpi-txapeldunak. Emaitzekin bukatzeko, igel jokoan Eugenio Hernandez izan da auzoko abilitate gehien izan duena eta horregatik txapeldun geratu da.

Antzeman daitekeenez, bikote dexente ibili dira txapelketen inguruan. Horregatik, urtero bezala, txapeldunei eta azpi-txapeldunei sari bat emango zaie eta horretarako bazkari bat antolatu dute. Bazkari honetan, ez dituzte sariak bakarrik banatzen, baizik eta aurten 75 urte betetzen dituztenei omenaldia egiten diete. Aurten bost dira omenduak: Raimundo Lasa Landa, Enrike Uli Berakoetxea, Miguel Iturrioz Amundarain, Joan Otamendi Jauregi, Basilio Osa Alzibar eta seigarrena, beste mundura joan berri zaigun Balentin Aldalur Iruretagoyena zen. Bera denen gogoan izango da, auzoko partaide sutsua eta maitea zelako.

Bazkaria Uztailaren 9an izango da Dana-ona Jatetxean.



SARA
LAZKANO

Urdaiaga

Badatoz festak

Badira pare bat aste udan sartu garelara eta urtero legez iritsi zaizkigu eguraldi ona eta eguzkia. Gustuko dutenek izango dute datorren hilabeteetan hondartzaz gozatzeko aukera eta nahiago dutenek badituzte urrutira joan gabe paseo eta mendi buelta interesgarriak, bakoitzaren nahien arabera da aukeraketa. Zortekoak izango dira oporrak hartuko dituztenak eta gainontzekoek udako egun luzeak eta gau motzak ahalik eta gehien disfrutatu.

Hemen ere, antzeman dugu uda iritsi zaigula eta mota guztietako jendea inguratzen hasi zaigu gure auzo honetara. Auzoa alaitu zaigu eta tontor honek urte guztian zehar izaten duen bakardade eta isiltasuna galdu egiten dira lehen eguzki izpiekin batera, eta ingurua betetzen zaigu familia, koadrila, bikote eta abarrekin. San Estebanek kolorea, erritmoa, musika eta usaina aldatzen ditu sasoi honetan. Betiko usainak belar moztu berriaren eta parrillan erretzen den haragiarenarekin nahasten dira. Eguneroko isiltasuna lotsatu egiten da haurren oihu eta gazteen kantuen aurrean. Parkearen berdetasuna tapatu egiten da, toaila, sonbrila, mantel eta abarren

azpian. Eta auzoko erritmoa aldatu egiten da, urtean zehar astelehenetik ostiralera eta aste tartetik asteburura bizi bagara ere, udan zehar eguzkiak markatzen baititu akordeak.

Ederra izaten da uda auzoan, baina izaten ditugu urtean zehar izaten ez ditugun zenbait buruhauste. Izan ere, eguna igarotzeko leku ederraz gain, gauean festa egiteko lekua ere bihurtu baita, eta auzotarrak ez gaude horretara ohituak, inondik inora ere. Eta lehen ostiral eta larunbat gauetan soilik gertatzen dena jada aste guztian zehar gertatzen zaigunez, inguruan bizi garenok kontsiderazio pixka bat eskatzen dugu, eta ez bertan ez biltzea, baizik eta eguna eta orduaren arabera musika eta oihiak eta batez ere martxa egitean guztia zegoen moduan uztea, txukun eta garbi, guztion onerako izango baita.

Azkenik, aipatu badatozela laster auzoko jaiak eta hemen lanean ari garelara orain hilabete asko egun horiek ederrak eta ahaztezinak izan daitezzen. Hala ere, badakizu egun hauek ahalik eta ondoen atera daitezzen zure laguntza behar dugula. Beraz, abuztuaren hasieran San Estebango plazan elkar ikusiko dugunaren esperantzarekin, hurren arte.

Balentin "Zialtzeta", gure Soinujolea

Hala duk, Balentin, hi hinentzen gure oilasko-biltzaleetako soinujolea. Ez zakiat zenbat alditan ibiliko ginen elkarrekin, baina beti gozatu diagu Aginagako gazteok hirekin. Eguraldi ona ala txarra izan, beti aurrera egiten genian. Euri asko egiten bazuen eta akordeoia bustitzeko arriskua baldin bazen, bagenian erremedio polita: basura poltsa handi batean sartu hire soinua... eta hurrengo baserrira.

Baina denborarekin hik ere sumatu huen nekea eta urte batean azken aldia zela azaldu huen. Guk ere eginahalak egin genizkian hik berriro ere jarraitzeko gurekin, baina azkenean onartu egin behar. Handik gutxira omenaldi



polit bat eskaini genian herrian.

Egia esan, gurea ez duk izan hik jaso duan omenaldi bakarra. Eta mundu honetako hire egunak bukatu direnean, bazakiat hire lagun eta trikitilari asko egon zirela hire azken agurrean ere.

Merezi huen seinale.

Orain gure artetik joan haizenean, hemendik bidaltzen dizkiot nire eta Aginagako lagun guztien doluminak hire emazte Juliri.

Eta hiri zer esango diat, Balentin? Jo ezak soinua beldurrik gabe hor goian, eta seguru nagok hemen Aginagatik falta diren batzuk inguraturako zaizkiala. Agur eta beti arte, Balentin.

Aginaga



LONTXO
ZUBIRIA

Zubieta, salomoniko

Bi emakume azaldu omen ziren errege Salomonen aurrera, biak haur beraren ama zirela aldarrikatuz. Salomonek, Jainkoaren adiskide eta ikaragarri jakintsua zenez, umea aizkoraz ebaki eta andre haiei erdi bana ematea agindu zuen, lehenbizikoz.

Usurbil eta Donostiako Salomonek, soldata faraonikoez lanean (lanean, edo), hainbat mese-ekin egin dizkiote Zubieta:

- Espekulazio-interesak mantentzeko gabe, balizko (baina frogatu gabeko) eskaera asetzeko, gure herrian milaka etxebizitza eraikitzea. Horri esker, baserriz josiriko (simaur usaina, euskara, etc.) Donostia aldeko azken herria desagertuko dute.

- Hori orekatzeko, Abaloz aldeko amildegia "natur interesgune" izendatuko dute, oraingoz etxebizitzak bertan egitea oso garestia litzateke-

elako.

- Espainolen pentsaera bakarra dogma daukan sistema pretoriano patriarkal hegemoniko horren zabortegeiz (kuartela, kartzela, erraustegia...) gozatzeko pribilegioa eskainiko digute.

- Zubieta errepide, komunikazio, zerbitzu eta gainerakoak, Bangladeshekoen tankerakoak dira, gehienez ere; inpuestoak, Holandakoen pareko.

Zergatik? Kargudun soldatadunen harrokeriazko adierazpenak ezagututa, kopuru handiak arrazoi. Konforme ez bazaude, ospa zeure herri-tik.

Gurean, bi herrietako Salomon horiek konponbideak erabaki baino, beren ezgaitasuna erakustea nahiago.

Bakarren batek, despatxuko kortina apartatu eta berezko irribarre ergela erakutsiz...

Zubieta



EDORTA
AGIRRE

Polinesiatik Australiara abiatu da Aitor Egileta


Martxoan aipatu genuen aldizkari honetan bertan. Iazko abenduan lana utzi eta munduari itzulia emateko asmoz abiatu zen Aitor Egileta gaztea. Egun, Tasmania eta Australia aldean dabil. Aurretik, ordea, Polinesian izan zen eta bertako bidaia-kronika eta hainbat argazki bidali dizkigu. Hori dena sarean ipini dugu, noaua.com web orrialdean. “Aitor Egileta, munduan zehar” atalean klik egin eta Polinesiako datu eta irudi aipagarriak ezagutuko dituzu.

“Polinesiako irletan beti da giro ederra”, hala dio Aitor Egiletak. Australetan izan ezik, neguan frexko egiten duelako. Gazte honek ‘neguan’ bisitatu ditu Sociedad-eko zenbait irla. Eta eskerrak. “Udan baino hobeto, izan ere, egunak ez dira horren beroak neguan (normalean 27 gradu) eta euri gutxiago egiten du”, hala dio Aitor Egiletak.

Eder baina garesti

Parajeak ederrak eta jendea zoragarria omen da. Aitorrek dioenez, “beti laguntzeko prest daude, bueltan ezertxo ere eskatu gabe (...). Estresik gabe bizi dira. Karibekoen antza hartzen diet, frantses kutsu horrengatik ez balitz”.

Elikagaien artean, itsasokoak nabarmendu ditu usurbildar gazteak. Prezioak, ordea, oso garesti. Aitorrek kronikan aipatzen duenez, “uste dut munduko leku garestienetako bat izango dela hau, eta zer esanik ez bisitariarentzat”. Zenbait irletan



HUAINE IRLA EZAGUTZEKO MODURIK ONENA BARKUTXO BAT ALOKATZEA DA.

luxuzko hotelak bakarrik daude, non ur gainean kokatutako lastozko txabola batean lo egiteagatik 600 eurotik gora kobratzen duten. Beste datu batzuk: ur botila handia supermerkatuan 2 euro; zerbeza bat tabernan 4,50 euro (500 ml); afari normal bat, 55 euro. Halere, badago gutxiago gastatzeko aukera: kanpingean lo eginda (15 euro gaueko) eta janaria supermerkatuan erosiz.

Ia munduaren beste aldean egon arren, Europako Konstituzioari buruzko gorabeherak entzun zituen komunikabideetan. Hau guztia eta gehiago, www.noaua.com web orrian topatuko duzue, “Aitor Egileta, munduan zehar” atalean.

Australiara bidean

Maiatzaren bukaeran Polinesian izan zen Aitor Egileta. Bertan 15 egun egin eta gero, ekainaren 1ean Zelanda Berrira egin zuen salto eta egun hauetan Tasmania eta Australiako hego ekialdea ezagutzeko asmoa du. Epe laburrera, Caledonia Berrira joango da zortzi egunez eta ondoren Australiara bueltatuko da berriz ere. Australiako ipar ekialdeko kostaldean, abuztuaren bigarren asterarte izango da. Eta handik Japoniarako hegazkina hartuko du.

Irudi hauek eta gehiago, noaua.com web orrian



ESTROPADAK EGITEN DIRA POLINESIAKO HUAINE IRLAN.



POLINESIAR KANTARIAK, TURISTENTZAKO KANTARI.



IRUDIAN, RAIATEA IRLAKO ETXE TIPIKOA.

Jende ugari ibili zen San Joanetan

Azken urteotako jendetsuenak izan dira. Egitarauak bi aste-buru hartu zituen arren, lagun asko gerturatu ziren Kalezargo (akaso, Belmonteko egokiago?) festetara. Giroa primerakoa izan da ekitaldi denetan baina, estimatuena dudarik gabe, Belmont dantza taldeko kideei eskainitako omenaldia izan zen.

Ekainaren 18an hasi ziren festak eta ederki hasi gainera. Ikusle asko bildu zituen Mendeku Itxua herriko musika taldeak. Ekainaren 25eko gauean ere, plaza jendez gainezka egon zen. Beste urte batzuetan, ordea, jendeak Hernanirako bide hartzen zuen. Aurtengo San Joanak, ordea, aspaldiko jendetsuenak izan dira.

Oilasko biltzaile gehiago

Oilasko Biltzaile Egunean ere, lagun gehiago animatu dira aurtun.

Ohiko ekitaldiez gain, izan dira lehen aldiz antolatu direnak ere.



EKITALDI GUZTIEN ARTEAN HUNKIGARRIENA SOKA-DANTZAKOA IZAN ZEN. EGURALDIAK LAGUNDU EZ ARREN, BELMONT DANTZA TALDEKO KIDEEI ESKAINITAKO OMENALDIA XUMEA BEZAIN EDERRA IZAN ZEN.

Patata tortila lehiaketa, esate baterako. Arrakasta handia izan du lehiaketak, beraz, errepikatzeko modukoa. Lehen

edizioan bi lagun hauek nagusitu ziren: Virginia Rikondo eta Agustin Martikorena nagusitu ziren.



EKAINAREN 18AN EGIN ZEN AUZOTARREN ARTEKO HERRI KIROL SAIDA IKUSGARRIA IZAN ZEN.



LEHEN ALDIZ, TORTILA LEHIAKETA EGIN ZEN SAN JOANETAN.



UMEEN EGUNAK LAGUN ASKO ERAKARRI ZITUEN KALEZARGO PLAZARA.

Trakarik gabeko Santixabelak

Akabo Santixabelak. Baina bitxia da. Aurten ez baita trakarik izan. Euriak zapuztu zuen jaietako azken ekitaldia. Ekitaldia antolatzen aritu zirenen ahalegina aipatzekoa den arren, azkenean euria izan zen nagusi.

Trakarik izan ez den arren, jai-giroa primerakoa izan da. Aurten, ekitaldi gehienetan haurrak izan dira protagonistak. Baina gazteak eta helduak ez dira atzean geratu.

Jaietako irudi batzuk bildu ditugu bi orriotan. Gure web orrialdean gehiago topatuko dituzue, www.noaua.com helbidean.



PUZGARRIAK, ERROKODROMOA... AUKERA ZABALA IZAN DA AURTEN.



EKAINAK 30. JOLASERAKO AUKERA UGARI IZAN DA AURTEN.



EKAINAK 30. PINTURA LEHIAKETAK ARRAKASTA IZAN ZUEN.



EKAINAK 30. PINTURA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA.



EKAINAK 30. GAZTETXOAK PILOTALEKUAN BAZKALTZEN.



UZTAILAK 1. BURUHANDIAK ETA ERRALDDOIAK.



UZTAILAK 1. OILASKO BILTZAILEAK, ARRATSEKO JOKOETAN.



UZTAILAK 1. DANBORRADA ARRATSEZ ETA GAUEZ EGIN ZEN.



UZTAILAK 1. PLATANO DANTZA TXOSNETAN.



UZTAILAK 2. IDI-DEMAN, JENDE UGARI BILDU ZEN.



UZTAILAK 2. ERREPRESALIAUEN OMENEZKO EKITALDIA.



UZTAILAK 2. BERTSO SAIGKO PROTAGONISTAK.



UZTAILAK 3. BENGOTXEA ANAI-ARREBAK NAGUSI TOKA SAIDAN.



UZTAILAK 3. DANTZARIEN SAIDA, PILOTALEKUAN.



UZTAILAK 3. POTTOKA BAKARLARIA TXOSNETAN.

“Xomorro”, Bertso-Paper Lehiaketako irabazlea

Xabier Aranburu “Xomorro” izan da Xaurtengo Bertso-Paper Lehiaketako irabazlea.

Antton Aranburu izan zen bigarrena “Ugarte” bertso-sortarekin. Hirugarrena, aldiz, Kerman Errekondo izan zen. Bertso hauek guztiak www.noaua.com orrialdean aurkituko dituzue.

Argazki lehiaketa oraindik martxan

Jaietako ehundaka argazki bildu nahi ditugu. Hori da lehiaketa honen helburua. Bide batez, NOAUA!rako bidea egiten dutenen artean, afaritxo bat zozketatu nahi dugu. Oso erraza da. Argazkia ekarri eta zozketan hartuko duzu parte.

Argazkia nola helerazi? NOAUA!ko egoitzara ekarri edota e-postaz igorri honako helbidera: erredakzioa@noaua.com.

Trukean, bi lagunentzako aforia zozketatuko dugu argazkiak bidaltzen dituztenen artean. Uztailaren 12an amaituko da lehiaketa.

Zorionak eta urte askoan!

Erraz pasatzen dira 20 urte. Baina ez dira debalde pasatzen. Zumarte Musika Eskolakoiei galdetu bestela. 1985 urtetik hona, asko izan dira musika ikasten aritu direnak. Gaur egun ere, asko dira musika ikasi asmoz Villa-Pilar etxera hurbiltzen direnak. Batzuk eta besteak, ikasle ohiak eta gaur egungo ikasleak, bat egin zuten ekainaren 25eko jaialdian. 20 urte ez baitira egunero ospatzen. Kiroldegira hurbildu ziren lagunuen gozamenerako, luzaroan gogoan izateko moduko ikuskizuna eskaini zuten. Hemen dituzue jaialdiko irudietako batzuk. Zorionak eta urte askoan!

Ekainaren 25eko goiza Zumarteko txistulariek eta trikitilariak alaitu zuten. Ikusgarriena, ordea, gaueko saioa izan zen. Taula gainetik lagun asko pasa ziren: txalapartariak, albokariak, trikitilariak, txistulariak, talde instrumentalak, abesbatzak, dantzariak... Baina ikusleak askoz gehiago izan ziren. Oiardo Kiroldegia txiki geratu zen.

Jaialdian zehar, omenaldi xumea egin zitzaion musika eskolako sortzaile diren eta gaur egun ere bertan musu-truk lanean dabiltzan Iñaki Mujika, Jexus Pagola eta Roman Manterola usurbildarrei.

Usurbilgo Musika Eskolakoei, ohar



ZUMARTE MUSIKA ESKOLAREN JAIALDIA APARTEKOA IZAN ZEN.

honen bidez eskerrak emateko aukera aprobetxatu nahi dute: *“Zumartek, bere 20. urteurrena dela eta kontzertu guztietan ikusle edo partehartzaile bezala egon diren pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkie, baita ekitaldi guzti hauek egiteko laguntza eskaini diguten erakunde, elkarte eta instituzio guztiei ere. Denei mila esker eta guk adina gozatuko zenuela espero dugu”.*

Abesbatza, Katalunian kantari

Uztailaren 14an hasiko da Katalunianko Cantonigros Nazioarteko Musika

Jaialdia. Bertan izango dira Zumarte-Orereta abesbatzako kideak. Gure ordezkariak Haur Abesbatza Lehiaketan eta Folklore Saileko Abesbatzen Lehiaketan hartuko dute parte. Lehiakideen artean, Letonia, Lituania Errusia, Txina, Venezuela, Kanada, Alemania eta Kataluniako abesbatzak izango dira.

Horretaz gain, Zumarte-Orereta abesbatzak beste bi emanaldi eskainiko ditu uztailearen 17a bitartean.



MUSIKARIEK BEZALAXE, DANTZARIEK ERE SAID POLITA ESKAINI ZUTEN.



EKAINAREN 25EKO TXISTULARI TALDEA DUZUE HAUXE. TRIKITILARIAK ERE KALEJIRAN IBILI ZIREN.

Moulinex lantegia, kolokan

1994 urterarte, Usurbilgo Ugaldea industrialdean zegoen Moulinex enpresa. Baina Ugaldekoa txiki eta zaharkitua geratu zen. Usurbilen mantentzeko saiakerak egin ziren arren, azkenean, Urnietak eginiko eskaintza onartu zuen Moulinexek eta duela 11 urtetik hona, Urnietan da hizpide dugun lantegia. Langileen adina, bataz bestekoa, 50 urte ingurukoa da. Gaur egun, 183 lagun ari dira lanean. Horietako 26 usurbildarrak dira. Tartean, Loli Korta, Moulinexeko enpresa-komiteko kidea. 32 urte enpresan lanean aritu eta gero, orain kolokan ikusten du bere lanpostua.

NOAUA! Bitxia da gertatzen ari dena. Duela lau urte Seb multinazionalak erosi zuen Moulinex enpresa eta orain saldu egin nahi du.

Loli Korta. 2001ean, Seb multinazionalak Moulinex/Krups taldearen hainbat enpresa bereganatu zituen. Seb multinazionalak beste marka batzuk ere plazaratzen ditu: Tefal, Roventa, Calor.

Orain argi geratu da Seb multinazionalaren benetako asmoa: konpetentzia egiten zion Moulinex markaz jabetu zen eta, orain, merkatutik kendu nahi du.

N. Ekonomikoki, ordea, ondo dabil enpresa. Fakturazioan gora egin du Seb kateak. Harrituta hartuko zenuten salerosketaren albistea, ezta?

L. K. Lehengo urtean, Seb multinazionalak Barbastroko (Huesca) lantegia itxi zuen eta 271 langile kalean geratu ziren. Egoera hori Urnietan errepikatuko zen beldur ginen. Gure kasuan, ordea, ez dute Barbastrokoa errepikatu nahi. Jabeak enpresa erosle baten bila dabilta. Jabeek esan digutenez, 8 dira



MOULINEX ENPRESAN USURBILDAR ASKO ARI DIRA LANEAN.

interesa azaldu duten enpresak. Hiru, izaera komertzialekoak dira. Beste bostak, izaera industrialekoak.

N. Salerosketa horretan zuen lanpostuak kolokan leudeke?

L. K. Ez digute garbi hitz egiten. Enpresarentzat alternatiba bat bilatzen ari direla diote. Euren asmoa da erosle bat aurkitu eta 70-80 lagunentzako lana ziurtatzea. Baina gainontzekoak kalera joango lirareteke.

N. Azken urteotan produkzioa jeitsi egin al da?

L. K. Azken boladan, topera ari gara lanean. Gure ustez, almazena bete-bete uzteko asmoa dute. Gure lantegia itxi eta Txinan edo bestelako toki batean lantegi berria ireki arte, gure produktuak merkaturatzen jarraitu ahal izateko.

N. Beraz, deslokalizazio baten aurrean gaude.

L. K. Bai. Txinara, Frantziara edo beste toki batera eramango dute gure lana. Jabeek esan digutenez, Frantzian dituzten enpresei alternatiba berdina eskaini zaie. Ez dakigu benetan horrela ote den edo ez. Baina ez dut uste beste urte bat gehiago egingo dugunik. 2005erako lana ziurtatu digute. 2006rako, ez. Garbi daukate gurea bezalako enpresek ez dutela Europan etorkizunik. Asia aldeko konpetentziagatik, bereziki. Alternatiba gisa, zeharo ezberdina izango den enpresa baten bila dabilta.

Langileak protestan

Ekainaren 11n, lehen kontzentrazioa egin zen Urnietako Moulinex lantegiaren aurrean.

Uztailearen 9an, ordea, Moulinexeko aparkalekutik Urnietako Udaltxerainoko martxa egingo dute.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aristitxko 8, behea - 943 363 348 - 609 888 021

MAHUKA
E. IZABALDE KALDEA, 3 - 943 361 100

Hemen aurkituko duzu
glizon eta emakumezkoen
MODAKO ARROPA

Errauste-planten aurkako herri plataformek hondakinak kudeatzeko plan alternatiboa aurkeztu dute

Zaborrei zein irtenbide eman. Hortxe dago koxka. Iaz, garai honetan, beste gairik ez zen. Erraustea gora, erraustea behera. Gipuzkoako Hiri Hondakinaren Kudeaketarako Plan Integralak harrotu zituen hautsak. Hondakinei aurre egiteko bi errauste-planta proposatzen zituen plan horrek: Txingudin, bat; Aritzetan, bestea. Berriki, errauste-planten aurkako herri plataformek beselako plana plazaratu dute. Erraustearen ordez, bestelako alternatibak proposatzen dituzte.

Azken asteotan, hondakinaren gaiak albiste, erabaki eta adierazpen ugari sortarazi ditu.

Agindu bezala, errauste-planten aurkako herri plataformek euren alternatiba garatu dute. Oraingoan, aurrerapen modukoa aurkeztu dute, "Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Plan Gidatzailearen Aurrerapena" izenekoa. 40tik gora profesionalek egindako hausnarketan ondorio da herri plataformek aurkeztu duten plan gidatzailea.

Atez ateko gaikako bilketa

Plataformen plan alternatiboak erraustea baztertu eta hiru bide hauek proposatzen ditu: atez ateko gaikako

bilketa bultzatu, konpostatze-gune ugari sortu eta sei biometanizazio planta eraiki.

Osagarri gisa, zaborra bereizteko lau planta berri irekitzea proposatu dute. Gaur egun bi daude: Urnietan eta Legazpin. Azkenik, birzikla ezin daitekeen zaborrarentzat bizpahiru biltegi eraikitzea aurreikusitako herri plataformen planean.

Mankomunitatearen prentsa oharra

Plataformetako kide den Peio Lozanok egin zuen plan honen aurkezpena, Donostiako Miramar jauregian. Arrazoi ekonomikoak medio, "Urnietako bereizketa plantara eramaten den zabor asko eta asko ez da bereizten" eta zuzenean zabortegira botatzen dela adierazi zuen Lozanok. Honen aurrean, San Markoseko Mankomunitateak Peio Lozanoren hitzak gezurtatu nahi izan zituen prentsa-ohar baten bidez.

Mankomunitateko kideen esanetan, "baieztapen hori errealitateetik oso urrun dago. Gaikako bilketaren funtzionamendua ezagutzen duen orok jakin badaki batzuetan, akatsez edo sisteman hobe parte hartu eta laguntzeko, edukiontzietan ezegokiak diren hondakinak botatzen ditugula". Horietako batzuk, egungo



PRENTSAURREKOAREN IRUDIA. ESKUBITARA, ZUBIETAKO ALKATEA.

teknologiarekin ezin daitezke birzikla. Berreskura ezin daitekeen hondakinari ezegokia deitzen zaio. Bada, San Markosekoen esanetan, Espainiako bereizketa plantetan sartzen den ezegokiaren batz bestekoa hondakin guztien %28 denean, Urnietako plantaren kasuan %19 da.

Horretaz gain, Peio Lozano herri plataformetako kidearen adierazpenak asmo txarrekoak direla uste du San Markoseko Mankomunitateak: "eskualdean hondakinak kudeatzeari buruz ezagutzarik eza nabarmena adierazten baitu. Era horretako aitortzen ez dute ezertan laguntzen ontziak birziklatzeari dagokionean lortu nahi diren helburuen lorpenetan".

Herri plataformek aurkeztu duten planaren helburuak

- Hondakinak sorburuan bertan eragozte, aurre hartzea eta murriztea.
- Hondakinak modu jasangarriari kudea daitezen bultzatea.
- Hondakinak sortu diren lekutik ahalik eta hurbiltzen kudeatzea.
- Gaikako bilketa integrala egiteko azpiegitura diseinatzea.
- Hondakinak berriro erabiltzeko prozesuak sustatzea, objetuen bizitza luzatzeko.
- Gipuzkoan itzultzeko ontziak erabil daitezen sustatzea.
- Hondakinak birziklatzeko prozesuak eta industriak sustatzea.
- Gipuzkoan konposta egiteko prozesuak indartzea.
- Energia sortzeari dagokionez, errausketa baino askoz prozesu jasangarriagoa eta eraginkorragoa den aldetik, biometanizazioa bultzatzea.
- Hondakinaren isurketa ahalik eta gehien murriztea.
- Hondakinei eta hondakinak tratatzeko alternatibei buruzko informazio zorrotz, zehatz eta osoa ematea.
- Gipuzkoako herritarrekin eta politikariek gardentasunez jokatzeko.
- Zaborrak tratatzeko metodo jasangarrii buruzko azterlan objektiboak egitea.
- Zaborren kudeaketan, prezioak gardenak izan daitezen bultzatzea.
- Gaikako bilketari, hondakinak berriro erabiltzeari, birziklatzeari, konposta egiteari, biometanizazioari eta abarri buruzko sentsibilizazioaren, heziketaren eta jardunbide egokiak izatearen aldeko giroa sortzea.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzea, nork bere hondakinaren ardura duelako, batetik; eta bestetik, hondakinak behar bezala kudeatuko badira, ezinbestekoa delako herritarrek erabakietan parte hartzea.

Foru Aldundia ere, konpostatzearen alde

Hiri hondakinen gaiak zeresan handia eman zuen iaz. Orduetik hona, gauza batzuk aldatu egin dira. Errauste-planten aurkako herri plataformek plan alternatiboa aukeztu dute. Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen albisteak ere, berrituak datoz. Orain, konpostatze-plantak eraikitzearen alde azaldu da Foru Aldundia.

Errauste-plantekin batera, konpostatze-plantak eraikitzearen alde azaldu da Foru Aldundia. Proposamen berri honek Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Integralean jasotzen denarekin bat egingo luke. Beraz, konpostatzearen alternatibian sakondu nahi da baina ez da erraustea baztertzen. Hau da, errauste-planten osagarri izango lirateke konpostatze-gune horiek.

Gipuzkoan bi errauste-planta aurreikusi dira eta bi planta horien aldamenean eraikiko lirateke konpostatze-gune horiek. Era horretan, gaur egun Ormaiztegin tratatzen diren 4.500 tonatik 44.000 tonara pasatu nahi du Diputazioak. Gipuzkoan sortzen den zaborraren %8 ongarri bihurtu asmoz.

Konpostatze planta bakoitzak 2,2 hektarea hartuko lituzke, eta zortzi milioi euroko aurrekontua izango luke. Donostialdeko konpostatze-plantan Donostialdeko, Urola Kostako,

Tolosaldeko eta Txingudiko zaborra tratatuko litzateke.

Donostiako Udala, Aritzetako kokagunearen aurka

Donostiako Udalak ere zeresanik eman du azken bolada honetan. Mankomunitate denek errauste-planta Aritzetan ipintzea erabaki zutenetik hona, Odon Elorzak zalantzan jarri du errauste eredua. Aldiz, biometanizazio eta gasifikatze planten alde egin du. Baina gutxiengoan agintzen ari da eta horrek egoera deserosoan utzi du. Odon Elorza alkatearen gogoz kontra, Donostiako udalbatza plenoa errauste-planten alde azaldu berri da. Aritzetako kokalekua baztertu baina Donostiako beste kokaleku batean jartzearen aldeko mozioa onartu zuten Donostiako udaleko oposizioiko talde denek, Ezker Batuak izan ezik.

Gipuzkoako Mankomunitateak, Donostiako Udalarekin bat

Gipuzkoako mankomunitateetako lehen-dakariak ere ados daude. Donostian bertan, Aritzeta ez den kokapen berri bat onartzeko prest. Luis Mari Oyarbide Foru Aldundiko Garapen Iraunkorraren Departamenduko diputatua iritzi ebrekoa da baina kokapen berria hautatzea Donostiako Udalaren esku uzten dutela jakinarazi du.



LUIS MARI DIARBIDE, FORU ALDUNDIAKO DIPUTATUA.

Aritzetan ez bada, non?

Uneoro, bi eztabaida ezberdin gurutzatzen dira. Erraustearen egokitasuna, bate-tik. Errauste-plantaren kokagunea, bestetik.

Aritzetako aukera baztertu eta kokagune berri baten alde azaldu da Donostiako Udala. Baina Aritzetan ez bada, non? Zubietako hautagaitzak indarra hartu du berriz ere. Beste zurrumurru bat ere zabaldu da: Usurbilgo mugan, Urbil inguruan dagoen lursail batean pentsatzen hasiak ote diren...

Definizioak eta esanahiak

Erraustez asko hitz egiten da. Baita alternatibetaz ere. Baina konpostaz, gasifikazioaz edota biometanizazioaz hitz egiten dugunean, zertaz ari gara hizketan? Definizioen atzean ezkatzen diren esanahiak bildu ditugu zientzia.net helbidetan arakatuz.

Konposta. Materia organiko hartzigarriarekin konposta egin daiteke. Materia organiko hori kontrolpean degradatzean lortzen da, eta, lurra ongarritzeko baliagarria izateaz gain, bestelako abantailak ere baditu: hondakinak kontrolik gabe degradatzean sortzen den poluzioa eragozten da, zabortegira edo tratatzerara eraman beharreko zabor-bolumena asko gutxitzen da...

Gasifikazioa. Abantaila ugari ditu erraustearen aldean. Gasifikazioan eta ohiko errektuntzan antzeko tenperaturak erabiltzen dira, baina gasifikazioan aire gutxiagorekin egiten da lan. Hala, gas eta konposatu toxiko gutxiago sortzen da, eta, gainera, sortutako gasa erabili egiten da; beraz, ez da ia ezer

isurtzen atmosferara. Bestetik, errauste-plantetan gelditzen diren zepa eta errautsetan poluitzaileak daude; aldiz, gasifikazioan gelditzen diren hondarrak kristalak dira, guztiz inerteak. Dena den, gasifikazioa ez dago guztiz garatuta oraindik.

Biometanizazioa. Materia organikoa baliatzeko beste modu bat biogasa sortzea da. Konposta egitean materia degradatzen duten bakterioak aerobioak dira, hau da, oxigenoa behar dute bizitzeko. Biogasa lortzeko, berriz, oxigenorik gabeko ingurua behar da; orduan bakterio anaerobioek degradatzen dute materia organikoa, eta emaitza metanoa eta karbono dioxidoa dira.

A Coruñaiko instalazioa da biometanizazio-gune modernoetako. Egunero 500 tona hondakin jasotzen ditu, eta horietatik asko elektrizitate bihurtzen ditu. Sortutako energia elektriko nahikoa da instalazioak berak dituen beharrak asetzeko eta hiriko kaleak argitzeko. Gainera, materia organikoaren hartxidura anaerobioa bukatu eta ez duenean gas gehiago ematen, gelditzen diren hondarrak konposta egiteko erabiltzen dituzte.

15 urteko zigorra

Pariseko Auzitegiak 15 eta 20 urte arteko kartzela-zigorra jarri die 1999an Plevinen zortzi tona dinamita baino gehiago lapurtu zituzten ETAKo kideei. Batzuei lapurreta egin izana leporatu zaie eta besteei dinamita hartu edo jaso izana. Patxi Seguroolari 15 urteko zigorra ezarri diote.

Zortzi orduz aritu ziren epaileak epaia prestatzen, eta emaitza hauxe: 20 urtera zigortu zuten Asier Oiarzabal, 18 urtera Miren Argi Perurena eta Jon Bienzobas, 16ra Fermin Martinez Vergara eta 15era Patxi Seguro. Yves Jacobek zuzentzen zuen gorteak, gainera, Frantzia bitzetako betirako debekua ezarri zien bostei. Operazio horretan ETARI laguntzea leporatuta epaitu zituzten ARB Britainiako Armada Iraultzaileko 10 kideetako bederatziri, berriz, bi eta zazpi urte arteko kartzela-zigorra jarri zieten eta bat aske utzi zuten.

Epaiketara joandakoei eskerrak

Patxi Seguroiak epaiketara joandakoei eskerrak eman nahi dizkie. Hemen dituzue idatziz helerazi dituen esker oneko hitzak: "Fresneseko espetxetik bihotzez eskertu nahi diet ekainaren 13an Pariseko epaitegian egon ziren guztiei. Oso zaila da une horietan sentitu genuena adieraztea, batez ere nik, 11 urte pasa ondoren, lagu-



HILABETEZ LUZATU DA PATXI SEGUROLAREN EPAIKETA.

nak eta familiarrak ikustean. Zuen presentziak beste leku batean egongo bagina bezala setiarazi zigun.

Ikusgarria izan zen. Batzuekin denbora behar izan nuen ezagutzeko, batez ere gazteekin. Pixkana joan nintzen guztiak ezagutzen. Momentu hunkigarriak izan ziren, txaloak, keinuak, hain gertu baina hain urrun. Baina agurtzeko orduan ikusi eta bizi izan genuena ezin da hitzekin adierazi. Emozioarekin malkoak atera zitzaizkigun, oso garrantzitsua izan zen niretzat eta besteentzat. Benetan, bihotzez, mila esker".

Araudi eta ordenantza berriak jendaurrean

Erainaren 10ean egindako bilkuran, Usurbilgo udalbatza plenoak araudi bat eta udal ordenantza bat onartu zituen hasieraz. Araudia, udal intereseko irabazi-asmorik gabeko elkarteak erregistratzeari buruzkoa da.

Udal ordenantzak, berriz, Usurbilgo Udalaren dirulaguntzak arautzeko xedea du.

Erabakia jada GAOn argitaratua izan da eta erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko epea uztailearen 21ean amaituko da.

Pentsioen inguruko informazioa

Orain arte, ezinezkoa zen "SOVI" delako pentsioa eta alargun geratzeagatik jaso beharreko pentsioa jasotzea. Bat edo beste, baina biak ez. Irailetik aurrera, biak batera jasotzeko aukera izango da. Beti ere, bi pentsioen artekoak ez badu kopuru hau gainditzen: 877,42 euro.

Tramitazioa oso erraza da. Hala ere, Usurbilgo PSE-EE alderdia informazio gehiago emateko prest azaldu da. Alderdi honek udaletxean duen buzoian izena eta telefono zenbakia utzi eta beraiek jarriko dira interesatuarekin harremanetan.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

K m
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

JUANTXO BURDINDEGIA
KALE NAGUSIA 10
243 370 000

Knk l
- L ntz r
- Gz n zk n rr p
- ll ur ntz k
- Fix r k h r
uztaren k
Zubiaurrenea, 3 33 17 7

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400
piatxoak
ogitartekoak
piatxer konbinatuak
TABERNA

ARRAINDEGIA PELLO
KALE NAGUSIA 17
T13 21
JOSU IL

Lopez nagusi Aizkora Txapelketan

Euskadiko II. Mailako Txapelketaren kanporaketa jokatu zen Santixabel egunean. 10 aizkolari aritu zen aurrez aurre, baina lehen seiak izan ziren finalerako sailkatu zirenak: Juan Jose Lopez, Daniel Vicente, Juan Manuel Erasun, Unai Otaño, Xabier Mindegia eta Manuel Kañamares. Finala uztailearen 31n jokatuko dute Loiolan, Donostian.

Lezaungoa da Lopez eta iaz Maila Nagusitik kanpo geratu zen. Santixabel egunean Usurbilen jokatu zen kanporaketan, ordea, maila txukunean aritu zen. 16 minutu eta 49 segundutan ebaki zituen bost egurrak. Bigarren Mailatik Maila Nagusira bueltatzeko aukera asko ditu Lopezek. Hori uztailearen 31n argituko da, Loiolan jokatu den finalean.



BEROAK EZ ZITUEN
DEMA-PLAZAKO IKUSLEAK UXATU.

Pozik joan eta pozik itzuli

Kadete zein infantil mailako Kneska-mutilak gustura ibili ziren Granollersen (Katalunia) jokatu zen Nazioarteko Eskubaloi Txapelketan. Bi taldeak laugarren izan ziren. Baina hori gutxienekoa izan zen. Primeran ibili dira, giro onean, eta hori da garrantzitsuena.



ESKUBALOI PARTIDA UGARI
JOKATU BEHAR IZAN DITUZTE.

Datorren urtean, gehiago

Giro ederrean jokatu ziren Usurbil Cup txapelketako finalak. Usurbil FT taldeak aurtengo edizioa antolatzen lagundu duten gutziei eskerrak eman nahi dizkie.

Benjamin mailan, mutilen artean, Zendoia izan zen nagusi eta Kaxeroak taldea bigarren geratu zen. Nesken artean, Suge Gorriak taldeak irabazi zuen eta Beti Gu taldea bigarren geratu zen.

Infantil mailan, Makarroiak taldea nagusitu zen finalean Bordatxo taldeari irabazi eta gero. Alebin mailako finala,

berriz, Fiatc Seguroak taldearentzat izan zen. Txikilino taldekoak izan ziren bigarren, penaltietan galdu ondoren.

Kadete mailan, Eh Oh Ah taldea izan zen jaun eta jabe.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete ondokoei: Usurbilgo Udala, Usurbilgo Kirol Patronatua, Labe Goxo okindegia, Laukote okindegia, Pello arraindegia, Laurok liburudenda, Dia supermerkatua, Ardi Beltza garagardotegia, Bordatxo taberna, Benta taberna, Aitzaga taberna, Zendoia taberna, Antxeta taberna, Irrati pub taberna, Zeuk kogiagintza.



BETI GU TALDEKOAK
BIGARREN GERATU ZIREN.

**M N
CENILL**
k r n t u r i
t l l u k
r z t z l u k
n t u r l u k r h r
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

GORRITI
edaritegia
kafe berezial
SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE Nagusia 10- atzakonldea
943 372 795

Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. 656 721 158.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzan da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zenbakian. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Udan umeak zaintzeko prest nago. 943 37 12 77 / 685 722 602 (Nerea).
- Udan haurrak zaintzeko esperientziadun neska euskaldun bat eskeintzen da. Egun osoko disponibilitatea. Interesatuak. 658 759 335.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak astebukaeratan, pertsona helduekin, fregaderako lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehentik ostiralera lan egiteko. Telefonoa: 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehentik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbituetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu (690 784 113).
- Oporretako, ospakizunetako, edozein mota-tako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943 555 835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Kamarera behar da Antxeta jatetxean astelehe-

- netik ostiralera lan egiteko, eguerdiko 12:30etik 16:00ak arte. 943 370 344.
- Harategian lan egiteko pertsona behar dugu, uztailean eta abuztuan. 943 37 20 34.
- Emakume heldu bat behar dugu etxekolanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzateke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (M^a Angeles).
- Orioko ileapaindegi batean estetizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Zarautzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarrik. Interesatuak: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Trailerra saltzen da lanarekin. Interesatuak deitu 649 85 01 31.
- Kalezar azpiko erreka ondoko bide berrian betaurreko batzuk topatu ditut. Galdu badituzu, NOAUA!tik pasa.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Haur baten jertse berde bat galdu dugu Zubiarrarena kaletik, San Ignazioko autobus geltoki bitartean. Aurkitu duenak mesedez NOAUA!ko egoitzan utz dezala. Mila esker.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajejan egon da beti. Prezioa: 9.000 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai. Telefonoa: 943 36 45 54.
- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Ianire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu: Telefonoa: 667 502 218.
- Bideokamera bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 - 665 749 615 gaeuz.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !



Zorionak hirukote!

Uztailearen 17an 4 urte beteko dituzue. Egun eder bat igaro ezazuela zuen guraso eta lagunekin. Muxu bero bana etxekoen partetik.



Zorionak Pottokok!

Laster ospatuko ditugu zuen urteak. Unaxentzat uztailearen 13an lehenengoa eta Enautentzat 17an laugarrena. Zorionak izeba Nuriarentzat ere, berak 12an beteko ditu urte batzuk gehiago. Muxu pilo bat etxekoen partez.

JAIOTZAK


- Haritz Aramburu Etxarren, ekainaren 21ean.

Oharrak - Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira

NOAUA! Kultur Elkartea - Borda Berri,
3 Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

I n t n n - z r m u n i k



Telf: 943 36 61 21

Alperroburu, 1

SARIA: 3 MUSIKA CD ZORAGARRI !!!

Galdera hau asmatzen duten guztien artean sari eder hau zozketatuko dugu.

10 kantuz osatutako Joseba Gotzon-en "FOTOPOEMAK" musika cd-a

10 kantuz osatutako Galtzaundi Euskara Taldearen eskutik "MARTXAUNDI 1234" musika cd-a

12 kantuz osatutako Karlos Gimenez-en "12 GELTOKI" musika cd-a

Nork piztu du aurtengo Santixel jaietako itxaferoa?

1) HAIMAR ZUBELDIA txirrindulariak
2) AMAIA ZUBIRIA kantariak
3) IMANOL AGIRRE futbolariak

Erantzunak bidaltzeko azken eguna
UZTAILAK 15

208. lehlaketako erantzuna:
Ekainaren 11ean herriko pilotalekuan antzeztu zen herri antzerkiak zer izen zuen?
SARRILAKO GILTZA

Irabazlea **ANDER AIZPURUA** izan da. Jaso ezazu saria Noaualko egoitzan. **ZORIONAK!**

Irudian, "Usurbilgo baserriak eta baserritarrak" liburuen egilea. Soluzioa: 22 orrian.

		Harri txin-txarrak	Arrain mota	Erdal hizkia	Bizkaieraz, udazkenak	Eguzki
		* DEITURA	Kezkatuta	Altzari mota	Norbait	
Gorenak						
Atzikia						
* IZENA	Zama			Eguneroko jaki		
Muskizko auzoa	Zuhaitz mota			Leherkari ezaguna		
Maiz						Infin., onartu
Zaren horrek						Jupiterren satelitea
		Ate, hitz elkarketan			Edari alkoholduna	
		Norat atzikia			Garraio mota	
				Gaixo		
Suzko armen jartigaia	Uztai			Bokala	Zintzoa	
				999	Aluminioa	
		Tiranako				
		Röntgen				
Iskanbilak						●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Agerialde)..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarte..... 37 17 51
- Arrate Egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero). 47 09 76

Eguneko goardiako farmaziak

Uztailak 8, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 9, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 10, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 11, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 12, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 13, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 14, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 15, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 16, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 17, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 18, astelehena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 19, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 20, asteazkena
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 21, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 22, ostirala
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte


Uztailak 23, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 24, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

GAUEKO GOARDIAKO FARMAZIAK
Urte osoan, gaueko goardiako farmazia guztiak
Hernanin egingo dira. Maria Jose Chucla,
Kardabenaz Kalea 48, Hernani (943 55 17 93).

2005eko egutegi osoa noaua.com helbidean

Soluzioa !



Datorren NOAUA!

Uztailak 22, ostirala

Egin kontu !

Tren eta autobus ordutegi berria

Duela hiru urte argitaratu genuen lehen aldiz tren eta autobusen ordutegia, sakelean eramateko moduko argitalpentxoak.

Bitan aldatzen dira tren eta autobusen ordutegiak: uda hasieran eta udazken hasieran.

Aldizkari honekin batera jaso duzun aleaz gain ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, NOAUA!ra hurbildu. Alkartasuna Kooperatiban, Udaletxean eta hainbat saltokitan ere topatuko dituzu ordutegi berriaren ale gehiago.

Noaua !

Tren eta autobusen
udako ordutegia
2005

NOAUA! Kultur Elkartea
Benda Berri, 3 Euzko kalea - 20120 Usurbil
943 360 321 / errotelarioa@noaua.com
www.noaua.com

Larazaintza
sartak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Lareak
karaak
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

ZUMET MENU K
(Gutx n z 2 l un nez t)
- Etx k h t f - r n s t
l r r z
- Its sk nts l h z r truf z r z
- Z u x n urr z t r k t s sk
s lts z
- s z m u u r , n t kl
r z h r s lts t n
- Etx k z k n uruk n st n
- t k f

Pauma

30%
50%

KALE NABUSIA 10 · 943 365 943

M A H U B A

beherapenak! %30!

ETXEBESTE 3 - 943 361 106



zeuk

zeure opariak, zeuk-en!



Fotoeskultura, kuadroak,
markoak...



udako
ordutegia

9.30-2.30
larunbata itxita

egin itzazu
eskariak
telefonoz
ere bail

ONDO PASA
JAIK
ETA UDAI



eskuz eginiko kuadernoak
eta kamisetak...



Bordaberri 1 · 20170 · USURBIL · 943 377 946 · 687 470 177

edertu!



Depilazioa
Makilajea
Manikura
eguzki dutxall

Zubiaurrenea 4, USURBIL
943 361 951

I
N
T
Z
A

betileen tintatzen
depilazioa
masajea



eskeintza bereziak!

943 363 641
KALE NAGUSIA 8



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanenten
Estetika
Solariuma
Tatuak

ESTETIKA
ZENTROA

Muna Lurra 2
943 370 462

TXARO

ile apainketa
zutikako solariuma
eska ezazu bonoa!



Etxebeste 3 - 943 371 685

L
OLI
IZARRALDE

Kolore, mozketa eta onda
moldeatueta azken
teknikak



Solarium bonoa 35€
Manikura osoa 7€
Pedikura osoa 13€




Zubiaurrenea 5-B 943 361 971

SAIDA

ile apainketa
betileen tintaketa



prezio bereziak jubilatueri!

Kalezer - 943 372 952

LOURDES
estetika zentroa



LARRAÑAGA

Depilazioa
laser, elektrikoa
eta ohikoa
Solarium
UVA gabeko bronzealua
15min. tan 8 egunerako!

Irazu 12 behea USURBIL - 943 362 887



ILEAPAINDEGIA

Solarium eta
depilazioak

Kale Nagusia 2- 943 372 844



Agate
ESTETIKA ZENTROA

depilazioa
aurpegiko
tratamendua
manikura
pedikura
solariuma
makilaia

Nagusia 51 - Lasarte-Uria 943 370 549



M. Karmen Esnaola

LURRINDEGIA
ESTETIKA
KONPLEMENTOAK

ZUBIAURRENEA 3 943 362 566